


Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

2000ko otsailaren 18a V.urtea

Usurbil, 83. zenbakia




**Kultur ibilbide
oparoaren saria**

Aizpurua



*Zure mahaia ondo
hornitu nahi baduzu
gurean duzu aukera!*

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25 Telf. 943 36 12 20

MANPEL, S.A.

- Bulegoetako materiala
- Liburudendetako artikuloak

Fraxton




Unipapel

Ugaldea industrialdea. 19. pabiloia
20170 USURBIL

Telf.: 943 36 58 92 - Fax: 943 37 16 86



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Garazi Basurtok urteak betetzen dituela ta... A zer merienda egin behar dugun! Baina batez ere zorionak eta urte askotarako Garazi! Etxekoak.



Gurutze, zure 15. urtebetetzean ongi pasatzea espero dugu. Otsailaren 19an ikusiko gara. Zorionak zure kuadrilakoen partez eta muxu haundi bat familiakoen partez.



Zenbat erori zaizkit, 19? Ba huan garaia, e!! Ea zerbaitetara gonbidatzen nauken urteen aitzakiarekin... Beno, berandu bada ere zorionak!! Hire lehengusua.



Urteaskoan **Julen!!** 13 urte bete zenituen pasa den otsailaren 15ean. Besarkada haundi bat etxekoak partez eta zorionak!



Nahiz eta hemen ez egon gogoratzen dizugu hemen familia bat daukazula. Ondo pasako zenuelakoan Zorionak **Aroa!** Etxeko aspaldiko zure txikitxo.



Zorionak **Aritz!** Otsailaren 19an 9 urte beteko dituzu. Muxu haundi bat. Etxekoak.



Dagoeneko pasa da otsailaren 5a. Hala ere ez pensatu ahaztu zaigunik. Zorionak amona! Etxekoak



Otsailaren 25ean ahatekoekin hasten omen zara. Zu ere aurreraka zoaz pixkanaka eh! Arantza eta etxekoak.



Zorionak **Xabier!** Martxoaren 1ean 8 urte beteko dituzu. Ea ongi pasatzen duzun eguna. Etxekoak.



Berriz ere kandelak prest ditugu. **Garazi**, zuk 17an bost kandela itzali behar eta **Mikelek** bi 25ean. Eta gure partetik... Zorionak!!



Etxeko denon partez kantatzera guaz zoriendu ditzagun honako bertsuaz Hogeita hamazazpi urte maitatuaz bete ditzazutela gukin gozatuaz

Zorionak Inaxio eta Arantxa



Batek 23an, besteak 26an, bien urtebetetze eguna gertu dago. Jarraitu orain bezain alai. Etxekoak partez muxu bat.



Zorionak **Iban!** Otsailaren 19an lau urte beteko dituzu. Segi orain bezain jator eta alai. Muxu pila bat aita, ama eta Iratiren partez

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia. Hurrengo alea: martxoaren 3a Ekartzeko azken eguna: otsailaren 25a

Hildakoak

2000-02-15
Juan Goenaga Iribar
50 urte
Urdaiaga

Jaiotzak

Intza Ruiz Orotegi
(2000-02-09)
Galtzaragaina

XABIER EDARITEGIA

Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

X Idiazabal gazta
X Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

TXURRUT TABERNA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Ortografia - Gramatika

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.com
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaua/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Aranxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gorzalez.

Eredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Artze anaiak urrezko domina jaso ondoren

Zer irizten?



Emakumeak Ibai-Ondon bazkide

Agustin Esnaola

Urtarrilaren 30ean Ibai-Ondo elkartekeo batzar orokorrean eta bigarrenengo deialdian emakumeak bazkide izateko aukera bozkatu zen. Bozketaren emaitza oso pozgarria izan zen, gehiengoz baiezkoa aterata zelako. Bazkide batzuk horrelako emaitzarik aterako zenik ez zuten uste, aspaldi honetan zenbaiten buruetan zebilen gai bat zelako, eta ezezkoa aterako zeneren zalantza asko zituzten.

Horrelako elkarteak gizonetzkoentzat eta gizonen zuzenduak izan dira orain arte. Orain urte batzuk ezinezkoa zen eta inori ez zitzaion bururatzaren emakumeak bazkide izan zitezkeenik elkarte batean. Hauek gizonetzkoen esparruak izan baitira, emakumeengandik ihesi ibili izan balira bezala.

Borroka haundiak sortu dituen gaia izanik, gizartea aurrerantz doan arabera, gure elkarteak ere aurrera egin du. Garai batean ezin zuten emakumeak sartu, gero igandeetara bakarrik mugatu zen, aurrerago asteen zehar sartzeko aukera izan dute eta elkarte aurrerakoi batzuetan sukaldean lagundu zezaketen, beste edonoren antzera. Aurrarapauso hauek ez dira izan hilaibete batzuetan hartutako erabakiak, alderantziz, eztabaida eta tentsio haundiak egon ondoren urte askoren poderioz hartutakoak baizik.

Gizarte honetan, talde bakoitzak, ideologi berdineko taldeak, arraza berdinekoak, adin berdinekoak, emakume edo gizonetzkoen elkarteak, denek egin dute beraien esparru edo inguru bat. Batzuk elkarte gastronomikoa, besteek kale inguru bat eta beste hainbat adibide ere jarri daitezke.

Guri dagokigun gaia euskaldun gizonaren esparrua da. Gure elkarte

hauetan gizonak emakumeengandik aske sentitu dira, emakumeek ezin izan dute (era zakar batetara esanda "muturra sartu") parte hartu. Eta guzti hau gizonaren askatasunaren defentsagatik.

Historian zehar emakumeak gaizki tratatuak izan dira munduko leku gehienetan; Euskal Herrian ere bai. Askotan, maila baxukoak kontsideratuak ziren erabakiak hartzerakoan, adimena gutxiagokoak... Baina denborak, zorionez, gauzak bere lekuan jartzen ditu eta gizakiak, adimenaren jabe garenez, ezberdintasun hauek hobetzen joan gara.

Garai batean ezin zuten hauteskundeetan parte hartu, sukaldean egotea zen beren aukera bakarra, etxetik kanpora lanera ezin joan... Orain, ordea, gauzak ez dira berdinak, eta nahiz eta arlo batzuetan oraindik gure gizartean berdintasunerako aukera ez eduki, guztiok edo gehienok berdinak ikusten ditugu emakumeak eta gizonak.

Giza eskubideak errespetatzea asko kostatzen da, Irun eta Hondarribian Alardearen inguruan zer gertatzen ari den ikustea besterik ez dago. Baina gure elkarteak, pribatuak izan arren, buru jabetza haundia erakusten ari dira. Usurbilen emakumeak bazkide izateko eskubidea duten elkarteak hiru dira dagoeneko: Aitzaga (hasieratik), Txokoaldeko Erroizpe elkarte eta Ibai-Ondo (Santuenekoa). Hau bai dela berdintasunaren alde lan egitea. Gure gizartearen aurrerapenekin batera gizatiarragoak izaten lagundu behar gaituzte.

Elkarte aurrerakoi hauen apustua egin behar dugu gure gizarte hau hobetzen joateko. Erabaki txiki hauek dira gizakia aurrera eramaten dutena.



USURBILGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Noaua! Kultur Elkarteko Batzar Orokorra izango da otsailaren 26an

2000ko BATZAR OROKORRA

EGUNA: otsailak 26

ORDUA: goizeko 10:30etan

LEKUA: Udaletxeko pleno aretoan

GAI ZERRENDA:

- 1.- 1999ko memori eta balantzea
- 2.- 2000ko egitasmoa: lantalde bakoitzaren proposamena eta onarpena.
- 3.- Diru kontuak: 1999ko balantzea eta 2000ko aurrekontuaren proposamena eta onarpena.
- 4.- Zuzendaritza Batzordearen osaketaren proposamena eta onarpena.
- 5.- Galdera/ erantzunak
- 6.- Hamaietakoa

Dagoeneko laugarren urtea bete du **Noaua! Kultur Elkartek**. Aurtengoan, beraz, IV. Batzar Orokorra izango dugu. Bertan, 1999 urteak utzi diguna ikusi eta 2000ko plangintza finkatu behar dugu eta horretarako, ezinbestekoa zaigu bazkide guztien parte hartzea. Izan ere, duela lau urte elkarrekin hasi genuen bide hau eta aurrera begira ere, bide-lagun izan nahi zaituztegu. Beraz, badakizue non eta noiz garen elkartzekoak. Larunbatean ikusiko dugu elkar, bitartean, ondo bizi!



PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

ZINTZANGA

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...



Euskal presoak etxera!

Tel. 943 36 02 17

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA

Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zuburrenea, 10
Tlf. 943 37 18 07- Fax.: 943 37 63 41

TXOKOALDE

Olatz Goenaga



Guardaren etxeari buruz

Larunbat batean Andatza aldera joatea erabaki genuen. Txokoaldetik atera eta Illunbe baserri ondotik pasa ondoren Guardaren Etxean azaldu ginen. Etxearen aurretik pasatzean, "Lastima!" pentsatu genuen, horrelako etxe dotore, sendo eta polita egoera horretan ikustea penagarria baita. Ingurua ere zaindu gabe dago eta dena larraz betetzen ari da.

Gure ibilaldia bukatu eta etxera joatean, Guardaren etxea nola dagoen aipatu genuen. Gero esan zidatenez, Frankoren garaian Nekazaritzako ministroak eta bere familiak oporrak bertan

pasatzen omen zituzten, bere eskolta eta guzti. Guardi Zibilak Txokoaldeko trenbide pasagunean egoten omen ziren eta pasatzen zen guztiari ea nora zihoan galdetzen omen zioten. Ondoren Diputazioak erosi omen zuen.

Duela urte pare bat edo, etxea ez du inork zaintzen eta eta egoera tamalgarran dago. Penagarria da horrelako etxe bat aprobe-txatu gabe

ikustea. Proposamen batzuk izan omen dira etxea ekintza ezberdinetan erabiltzeko, baina badirudi proposamen hauek bertan behera gelditu direla eta ez dutela aurrera jarraitu.



KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



Santa Ageda bezpera oroitzuz

Urtero legez otsailaren 4an Euskal Herri osoan hedaturik dagoen ohitura zahar hau berriro ere gogoratu zen Usurbilen. Lehenik eta behin, girotzeko eta ohitura hau zertan datzan jakiteko, Bota Punttuba bertso eskolak antolaturik **Joxe Mari Satrustegi** euskaltzain arruazarra etorri zen otsailaren 3an bertso eskolara, "Santa Ageda bezperaren jatorria" izenburupean hitzaldi bat eskaini zuelarik. Berak dakienetik abiatuta hainbat zehaztasun azpimarratu zituen:

□ Nafarroan eta hainbat herrialdetan mantentzen den herritan mutil gazteak irteten direla soilik, hau da ezkongabe-

ak. Dena den, badira neskak soilik irteten diren herri gutxi batzuk ere. Beraz, esan daiteke **gaztaroari loturik** egon dela.

□ Gaur egun mantentzen diren kopen letrei begiratuaz, Santa Agedari kendu zizkioten bularrak zirela medio oroitzen dela usadio hau. Hau da, bere birjintasuna jauntxo baten aurrean ez galtzegatik jasotako zigorra.

□ Ohitura zahar hau urte sasoi berriaren etorrerarekin errotua egon daiteke, ihauteriek hala baitute bere jatorria.

Ordu eta laurden iraun zuen hitzaldi honek eta bildu ginen apurrak gustora irten ginen.

Otsailaren 4a Santa Ageda bezpera izanik, arratsalde partean Udarregi ikastolako haurrak kantari irten ziren.

Ilunabarreko 7tan, berriz, Bota Punttubak antolaturik **gualdeko eskea** irten zen. Hamaika lagun bildu ziren trikitilari, bertsolari, makil eta guzti. Hona hemen Aialdenea sagardotegian jendeari eskainitako kopia batzuk:

**Inor ez zegoen triste
nik behintzat hala det uste,
ohitura zaharrik ez da galduko
hola zaintzen bagaituzte**

**Inguruetan kupela
inundik ere badela,
earki asko antzematen da
sagardoteyan gaudela.**

KALEZAR

Oroitzapenak

Usurbil haunditzen ari den unean, Kalezar ere zabalduz doa pixkanaka-pixkanaka. Garai batean Belmonte izandakoa bere horretan mantentzen bada ere, azken urte

hauetan berrikuntza ugari izan ditugu.

Nork ez ditu gogoratzen 3-6 urteko haurrak eskolaurrera igotzen ziren garai haiek, edota ikastolako 7-11 urteko

haurrak gordeketan Kalezarren ibiltzen zirenekoak... Orain eskolaurrea izan zen eraikuntza botata dago, zenbait ikasleren haurtzaroko gogoetak gordezten zituen eraikuntza herriko talde desberdinen topale bihurtu da.



Ainara Uribe



Bestalde, Belmonte zaharra zaharberrituta ikusiko du bertatik pasatzen den edonork. Etxe zaharrak izandakoak erabat eraberritu dituzte, etxetxo berriak ere egin dituzte, eta egiten ari dira noski!

Izan ere, Illaramendi aurrean egiten ari diren etxeak amaitzeko ez zaie asko faltako. Pasa den urtetik hor dabilta dinbidanba, etab uste dut denok daukagula hauek amaituta ikusteko gogoia. Kontutan hartu hauek amaitzearekin batera, Usurbilgo kale nagusi aldetik Kalezarrera joateko bidea ere berria izango dugula. Gure oroitzapenetan geldituko da zubi zaharra

ATXEGALDE

Auzotar Patxi eta Berroti zirkoa

Lehenik eta behin, aipamen berezi bat gure auzotar den Patxi Segurolari. Badakizue egun mordo bat daramala gose greban, eta pentsa bere egoera nolakoa izango den: batetik, neguko hotza eta bestetik, gose grebaren gogortasuna, eta dena bere eta guztion helburua lortzearen. Bestalde, pentsa dezagun sendikoen egoera nolakoa izango den, erabat kezkatuta eta urduri egongo baitira.

Gure ingurukoak lagundu nahi baditugu, adieraz diezaiogun gure elkartasun osoa. Kasu honetan Patxi lagun dezagun

hasi duen bidean, gure uso hegalaria gure artean berriz egon dadin.

“...beti nahi izan dut aske bizitzea, nire hegala zabaldu eta hegaz joatea...”

Bestalde, ez nuke bukatu nahi Mahaspildegi kalean hainbeste egunetan egon diren Berroti zirkokoan aipamenik egin gabe. Hemen izan dira bufalo, zaldi, sugar eta guzti. Badakizue zer nolako su-ederrak egin dituzten urtarri-leko hotz horrekin? Ba...joan

Jone Eizmendi



zaizkigu eta, hilaren zazpiaz geroztik, berriro kalea libre geratu zaigu. Itxaron egin behar ea zirko-emanaldiren bat eskaintzera etortzen zaizkigun!

SANTUENEA

Gure biztanlegoa

2000. urtera iritsi garen arren, ez dirudi Santuenea asko aldatu denik. Egia esan azken urte hauetan etxebizitza eta errforma oso gutxi egin dira, hiru edo lau gehienez.

Auzoan, gutxi gora behera, 30 etxebizitza daude gaur egun eta ez dirudi aurrerantzean gehiago izango direnik. Santueneak beste urte askotan txikia izaten jarraituko duela dirudi, sagardotegia, behintzat, badaukagu eta aurrera!

Gure auzoan gehien aldatu dena biztanlegoa izan da. Batzuk joan, besteak etorri...beste auzoetan gerta-

tzen den bezalaxe.

Ditxosozko 2000.a etorri dela eta, kuriositatez gure auzoan zenbat garen jakin nahi nuen. Horretarako udaletxera joan nintzen informazio bila eta hauxe lortu nuen:

Gaur egun 613 lagun gaude auzoan banatuta, nik uste baino gehiago. Hauetatik 92 jubilatuak dira eta 18 urtez beherako gazteak 107 dira. Gainontzekoak 18 urte baino gehiagokoak, baina oraindik jubilatu gabeak 414 dira.

Isaak Muñoz



Datu hauen arabera, jubilatuen eta gazteen kopuruak oso parekoak dira. Honek zera esan nahi du: auzoko populazioak ez duela gora egingo. Hau ez da harrizkoa gaur egungo egoera ikusita.



URDAIAGA

Ilunpean

Dudarik ez dago, gure auzoa oso polita da. Baina hau egunez esan behar dugu, izan ere, gaua iristean ez baitago ezer ikusteko modurik, argirik ez dagoelako.

Bai, kaxko-kaxkoan badaude farola batzuk baina gainontzeko guztia zer?

Aurreko egun batean auzokide batzuekin elkartu nintzen eta honi buruz aritu ginen. Argia behar dugu eta arrazoiak bat baino gehiago dira:

1- Gauetz, eta batez ere neguan, oinez baldin bazoaz, izugarriko sustoak har ditzazkezu, edozein azal daiteka

zure aurrean, ezezagunen bat, sendategiko bat...

2- San Estebango kaxkoa argizatuta dago, baina nahiko aparte gelditzen da.



Alazne Begiristain



Santueneraino badugu argia eta baita Goiko-Errotaraino ere, tarteko bidean argiak jarriz gero, ibilbide polita geldituko litzateke albo batetik bestera.

3- San Estebango parkea ere hor dago. Hemen ere argi pixka bat ongi etorriko litzateke, gaualdean ere bertan lasai-lasai egoteko.

Nik uste dut arrazoiak egon badaudela eskatzen duguna emateko. Norbaitek arrazoi gehiago behar baditu, laister aurkituko ditugu gehiago.

AGINAGA

Pilotaleku estalia

Aginagaren aspaldiko eskakizun den pilotaleku estaliaren ametsa egi bilakatzeko bidean da dagoeneko. Izan ere, pasa den abenduaren 21ean eginiko udalbatzan pilotalekua eraikitze proiektua lehiaketara ateratzea erabaki baitzuen Usurbilgo Udalak. Ondotik, proiektua hautatzeko sasoia heldu da, gure auzoan behingoagatik pilotaleku estalia lortzeko.

Bere garaian eragozpen franko izan zen pilotaleku berriaren kokapena zehazteko orduan, baina azkenean orain gutxi arte eskola txikia izandako lekuan eraikiko dute. Horretaz

gain enparantzaren zati bat ere hartuko luke frontoi berriak.

Hasierako ustezko kokapenean geratzen zena baino gerutuago egongo da pilotalekua eliza zaharretik. Frontoia eraikitzerakoan enparantzari zati handi samarra kenduko bazaio ere, eliz etxearen aurrealdean dagoen belardiaren zati bat handitzeko erabili nahi dute.

Hala, egitasmoa egi bilaka-

tzean, erabat aldatuko da Aginagako inguru hau, pilotalekuaz gain, parkea ere beste modu batera egongo baita antolatuta.

Iratxe Begiristain



ZUBIETA

Zubieta, 1000 urteko herria

Datorren otsailaren 27an, eguerdian, "Zubieta, 1000 urteko herria" liburua aurkeztuko da, Udal aretoan. Bertan, Joxe Ramon Zubimendi idazle zubietarra izango dugu liburu honen aurkezle eta egile bezaia, zubietako Udal Batzordeko kideekin batera.

Liburu honen bitartez, zubietarrok gure historia eta pasarte garrantzitsuenak ezagutzeko aukera paregabea izango dugu bostehun orritan kontaturik. Hauetako ale batzuk banatuko dira zubietarren artean.

Liburu hau Donostia eta Usurbilgo udalek eta Kutxak

babestua izango da. Ideiaren buru, berriz, Zubietako Herri Batzarra izan da eta Noaua! Kultur Elkarteak argitaratzailea.

Aurkezpen honen ondoren, herri bazkaria izango da herritar guztientzat, liburuaren argitara-

tzea ospatzeko, hau ez baita eguneroko kontua.

Lerro hauen bidez usurbildar guztiak, eta bereziki zubietarrak, animatu nahi zaituztet aurkezpen honetan parte hartzera, baita ondorengo bazkarian ere. Hala ere, bazkariaren ordua, lekua eta izen emateko epearen inguruko informazioa ethez etxe banatuko da.

Bestalde, pasa den otsailaren 5ean Joko Garbiko Gipuzkoako txapelketak izan ziren Amasako frontoian. Bertan, **Imanol eta Joseba Aizpuruak** azpitxapela lortu zuten helduen mailako finalean, Billabonako Alejo anaiekin lehian aritu ondoren.

Mikel Bengoetxea





Ia aho batez onartu ziren 2.000. urteko udaleko aurrekontuak

Udalak 1.140.607.819 pezetako aurrekontua izango du 2.000 urtean, hala onartu zuten behintzat pasa den abenduaren 22an egin zuten plenoan. Aurtengoa elkarlanean aurrekontua da; izan ere udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztien artean bideratu baitituzte aurtengo gastu eta diru sarreraren nondik norakoak. EHko zortzi ordezkariak, EAko biek eta PSOE-EEko ordezkariak baiezkoa eman bazuten ere, azken orduan, EAJ-PNVko bi ordezkariak kontrako botua eman zuten.

Aurrekontua hasiera batean 770 milioi ingurukoa bazen ere, Atalluko lurren erosketak aurrez aurreikusitakoa puztu duela esan digute udal ordezkariak. Izan ere, 369.524.533 pezeta bideratuko dira Atalluko industrialdea egi bihurtzeko. Paris etxe atzeko parkea egitea da aurtengo erronka nagusienetako bat, nahiz eta 2.001. urte arte itxaron beharko den asmo hori gauzatu ikusteko.

SARRERAK	
Zuzeneko zergak	222.650.000
Zeharkako zergak	34.521.954
Tasak eta bestelakoak	144.056.220
Transferentzia arruntak	361.654.112
Ondareko sarrerak	8.201.000
Kapital transferentziak	369.534.533
Guztira	1.140.607.819

GASTUAK	
Personal gastuak	313.207.527
Ondasun arrunten erosketak	140.939.731
Finantza gastuak	17.852.316
Transferentzia arruntak	84.253.045
Inbertsio errealak	504.611.269
Kapital transferentziak	15.586.563
Pasibo finantziarioak	64.157.368
Guztira	1.140.607.819

2000ko gastu aurrekontuaren laburpena	Langile gastuak	Ondasun-zerbitzuen erosketak	Finantz gastuak	Transferentzi arruntak	Inbertsio errealak	Diru transferentziak	Finantz pasiboak	Guztira
Zerbitzu orokorrak	56.960.028	21.555.217		4.452.500	3.000.000	13.000.000		98.967.745
Udalzaingoa	31.648.307	1.685.285			250.000			33.583.592
Zerbitzu ekonomikoa	25.715.655	1.075.000	17.852.316	1.708.800			64.157.368	110.509.139
Hezkuntza	25.083.109	9.630.994		3.701.934	3.800.000			42.216.037
Kultura	15.223.166	7.197.000		14.030.650	5.207.280			41.658.096
Gaztedia		1.600.000		871.250	3.500.000			5.971.250
Kirol patronatua				34.658.301				34.658.301
Zerbitzu ekonomikoa	25.283.814	8.218.099		14.967.059	1.000.000	2.000.000		51.468.972
Hastapen tailerra	15.781.468	4.269.494						20.050.962
Garapen agentzia	12.353.135	5.309.000			12.060.000			29.722.135
Hirigintza obrak	7.328.503	7.566.257		45.000	410.694.543			425.634.303
Zerbitzuak Ingurugiroa	89.299.773	67.037.159		5.400.394	54.549.446			216.517.568
Nekazaritza		940.000		559.731	9.500.000	586.563		11.586.294
Euskera	8.299.773	4.856.226		3.857.426	1.050.000			18.063.425
Guztira	313.207.527	140.939.731	17.852.316	84.253.045	504.611.269	15.586.563	64.157.368	1.140.607.819

2000. urteko udal aurrekontuaren alde azaldu gara; lehen aldiz, udal ordezkari-tza duten alderdi nagusien (EA, EH eta EAJ/PNV) arteko elkarlan, negoziazio eta akordioaren ondorioz sorturikoa delako. Hiru alderdien artean osatutakoa da. Gainera, aurrekontu honek legegaldia- ren gobernu programa adostu bati erantzuten dio eta guztiz koherentea eta ekilibratua da.

Azken sei hilabeteen lanaren arabera esanenez EH-k nahiz EAJ/PNV-EA koalizioak hauteskunderetan zituzten lema- k batzera iritsi gaitela; hau da, BATEGINIK HAIZE BERRIAK ditugula udal- tzean.

Aurrekontu honen bereizgarritasunaz galdetu- rik esan nezake azken urteetan udalak ia a- hazturik zeu-



Luis Mari Ormaetxea
Eusko Alkartasunako kidea

kan arlo bat bultzatzen dela. Usurbilgo gara- pen ekonomikoaz ari naiz. Aurrekontu honekin hasera emango zaio Zubietako Lanbide Eskolan kokatuko den "enpresa hazitegia", Ugaldeako industrialdea eraberritzearen pau- soak emango dira, Atallu industrialdea guztiz garatuko da, langabetu eta enpresentzat "LANGAI kolokazio zerbitzua" martxan jarri da, Usurbilgo garapen turistikoa bideratuko duen plan estrategikoa gauzatuko da, herri- ko merkataritza sektorean URBIL-Eroski makro-zentro komertzialak izango duen era- ginaz jabeturik, inpakto hori minimizatzeko neurriak planteatuko dira, Hastapen Tailerrak eta enplegua dinamizatzeko egitasmoekin jarraituko da, etabar.

Azken finean, ideia berriei aukerak ematen dizkien aurrekontu bat dugu.

Ezin ahaztu diru publikoa kudeatzen ari- garela, eta herritar guztiona dugun dirua zuzentzeko behar handia; herritarren beharrak ahalik eta hobekien asetzeko da gure helburua, baina behar guztiak ezin izango ditugu asetu, udalak di- tuen diru sarrerak mugatuak baitira. Ondorioz, lehentasunak finkatu behar ditugu.

Arloei erantzun egokiagoa eman ahal izateko zenbait bereizketa egin dira; Gaztedia eta Nekazaritzan hain zuzen. Horrek beren nortasuna egokiago man- tentzea ahalbidetuko du.

Inbertsio kapituluan aipamen berezia du Potxu- Enearen erosketak, Paris atzeko parkeak, hilerria amaitzeko...

Aurrekontuei buruz, hitz bitan azpimarratzekoa;



Agustin Lizaso
Euskal Herritarrokeko kidea

ELKARLANEAN egindakoak izan direla eta taldeetako ordezkariak azaldu duten jarre- ra oso baikorra izan dela. Horren ondorio bezala uler daiteke azken emaitza: EH-8, EA-2 eta PSOE-1 alde, PNV-2 aurka.

Tamalez, aurten ere ezin izan dugu denon adostasuna behar lukeen aurrekon- tua aurrera atera, badi-rudi kanpoko/bar- neko zenbait mamu beltzek eragina dutela batzuegan. Batere zentzudunak ez diren azken momentuko zenbait aitzaki nahikoa izan dira aurretik ados- tua zegoen aurrekontuari ezezkoa emateko; Eguneko Zentrua eraikitzeko partida bat exijitza, inolako aurre ikerketa-bideragarritasun txostenik egin gabe...Udal langilegoaren kostua, Udarregi lkastolan egindako inbertsioak, Atallu...

Udalaren eginbeharra eta ardura, dau- den beharrekin lehentasunak markatuz herritarren diruak ondo eta egoki kudeatzea da (zergak, gastoa, inbertsioa, zerbitzuak...).

1- Herriari eskaintzen zaizkion zerbitzuak hobetuak eta ahal bada merkeagoak izan behar dutela iruditzen zaigu. Zerbitzu batzuk, udalak zuzenean egin beharrik ez daukala ulertzen dugu. Hauek pertsonak profesio- nalaren bidez egin daitezke, azpikontra- tazioaren bidez, era honetara kalitatea eta prezioa hobetuaz. Gure asmoa ez da udal langilearen eskubideen aurka joatea, eskubide hauek beti, guztiz errespetatuak izan behar dute. Beraz, enpresa espezializatuak egin ditzazketen lane- tarako udalak ez luke pertsonal berri gehiago kontra- tatu behar. EH-k langile finkoa gehituz daraman kon- tratazio politika ez da egokiena.

2- EAJ-PNVren ustetan, udalak momentu honetan ez dio ONGIZATE sailari behar duen atentzio eta laguntza ematen; umeei zuzenduta hutsune handia dago, beraiei zuzenduta ez dagoelako gauza haundirik.



Andoni Atxega
EAJ-PNVko kidea

Gazteei dagokionez gaztetxeak inongo kontrol, arauketa edo neurririk gabe sortzen dira eta EH-k zuzentzeko jokatu beharko luke gai garrantzi- su honetan. Adineko pertsonen dagokionez, azkenik, gaur egungo minimo batzuk besterik ez zaizkie eskeintzen. Aktibitate gutxi, muga- tuak eta behar beharrezkoa den atentzio per- sonalik gabe.

3- Hirigintza arloan ere gure desadostasunak azaltzen ditugu:

- EH-k erabiltzen dituen joko-eretan lur- rakkudeatzeko garaian, baseritar lur jabeen aurka eta konstruktore edo enpresa haundien babesle bihurtuz.

- Atallu proiektuaren gaitasuna ez dugu garbi ikus- ten, Santuenea auzoari ekarriko lekizkiokeen arrisku- enatik.

- Ez da ere ez dugu jokabide garbia ikusten EH-k ekologia zaintzeko erabiltzen duen moduan.

Guzti honengatik ez gatoz bat EH-k daraman norabi- dearekin. Beraz EAJ-PNVren botoa aurkakoa izan da.


Udalak Potxonea erosteko akordioa hartu dezake otsailaren 29an

Irazu kalean dagoen Potxonea eta Kalezarko beste hiru lurzati erosteko hitzezko akordiora aspaldi iritsi ziren beraien jabeak eta udala. Otsailaren 29ko plenoan akordio hauek sinatzeko alkateari baimena eman edo ez eman jarriko da mahai gainean. Hau onartzen bada udalaren eskutara pasako dira Potxonea eta beste hiru lur zatiak.

Gaztetxearen inguruko erreportaia argitara eman genuenean zenbait akats azaldu ziren bertan. Izan ere, guk Potxonea udalarena zela esaten genuen bertan, baina udalak bere jabeekin zuen hitzarmen bakarra hitzezkoa zen.

Epe motzera, ordea, Potxonea udalarena izan daiteke. Otsailaren 27an egingo den udalbatzan hartuko dute aurrez iritsi ziren hitzezko akordioa gauzatzeko erabakia. Honekin batera Kalezarren dauden hiru lurzati erosi ditzazke.

Bestalde, Potxonea egokitzeko 3.500.000 pezetako diru kopurua aurreikusi du udalak 2.000. urteko aurrekontuan. Paris-etxe atzeko parkea eta Kale Nagusia 10eko lanak maiatzan edo ekainean hasiko direlakoan daude, eta honekin batera Potxoneako beheko solairua gazteentzat egokitzeko asmoa dute.



Asteazkenetako azoka anbulategiko aparkalekuan



Datorren otsailaren 23tik aurrera asteazkenetako azoka anbulategiko aparkalekuan egingo da. Orain arte Paris atzeko aparkalekuan egin izan bada ere, egun horretatik aurrera anbulategiko aparkalekua izango da azokaren kokaleku berria.

Ikertalde

Azken aleetan behin baino gehiagotan aipatu izan dugu Ikertaldekin egin behar duen inkesta. Udalak Promozio Publikoko Etxebizitzaren eraikuntza bultzatu nahi duenez, zenbait ekimen jarri du martxan helburu honekin. Herritarrek zein motatako etxebizitza (babes ofizialekoak, sozialak, alokairuak...) eraikiko diren erabaki baino lehen, herritarren asmoak ezagutu nahi ditu Ikertaldekin egingo duen inkestararen bidez. Udalak herritarren asmoa jakin nahi duenez, udalaren izen ematea eskatu nahi die interesa duten guztiei. Izena emateko udalera joan beharko da.

Pinturas
lon



Urtinea Elkarteak

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

ALBORTA

HARATEGIA

Etxeko berezitasunak:

- Oholkiak
- Txorixoak
- Kroketak...

Behoko kalea, 4
Atxegalde ☎ 943 36 57 42

Artze anaiek Euskal Herriko Unibertsitatearen urrezko domina jaso dute



Lau kultur gizon, lau gizon omendu, emozioaren mende zeuden lau pertsona, EHUren urrezko domina jaso zuten lauk. JosAnton eta Jexux Artze usurbildarrak, Benito Lertxundi oriotarra eta Mikel Laboa donostiarra. Ez dok amairu hartatik abiatuta euskal kulturgintzan ezohiko dizdira, aparteko garrantzia, itzelezko itzala duten izenak lauk. Orain urre gorritzko domina daramaten lau "artista".

12.00etan zen hitzordua. 15 minutu lehenago han ziren saritutako laurak. Miramar jauregiaren gerizpean, Kontxako badia aurrean hartuta argazki kamara eta telebista kamaren

aginduetara zebiltzan laurak. Miramar jauregi barruan berriz, mugimendua nagusi. Jendea pixkanaka-pixkanaka areto nagusirantz sartzen ari zen. Hori bai, ekitaldia hasterako jendez gainezka zegoen aretoa.

Bertan ziren lau omenduen senitartekoak, adiskideek ere

Ez Dok Amairu-tik abiatuta gaur arte egin duten kultur ibilbide oparoa saritu du Euskal Herriko Unibertsitateak

ez zuten huts egin eta noski, usurbildar lagunak ere ez ziren falta. Artzetarren bizilagunak, aspaldiko lagunak, kultur munduko ordezkariak, beraien miresleak... urrezko ekitaldi honetara ezin huts egin zezaketeten guztiak.

Txalo artean, abesbatzak ohiko "Agur jaunak" abesten zuen bitartean sartu ziren aretoa lau omenduak. Lehenbaitlehen esertzeko asmoa bazuten ere, zutik egon behar izan zuten, argazkilarien agindutara noski. Unibertsitateko Idazkari Nagusi den **Marisol Estebanek** Urrezko domina emateko erabakia irakurri zuen, eta **Anjel Lertxundi** idazleak "Ni gazte sentimental"

izeneko hitzaldia eskeini zien **Lertxundi, Laboa eta Artze** anaiei.

Horrenbestez iritsi zen dominak emateko garaia. EHUko Errektore den Pello Salaburuk banan-bana jarri zizkien lepotek zintzilik Urrezko Dominak lau omenduei. Emozioa aurpegietan, urduritasuna gorputz guztian eta noski, txalo zaparradaren oihartzuna nagusitu zen areto osoan.

Dominak jaso ostean, **JosAnton Artze, Benito Lertxundi eta Mikel Laboak** hartu zuten hurrenez-hurren hitza. Poesiazko eskeintza alde batetik, Ez Dok Amairuren garaiko oroitzapenak bestetik, **Xabier Leteren** "Izarren hautsa" kantatuz agurtu zuen eskeintza eta agurtu gintuen bertaraturikoak Mikel Laboak.

Oroitzapen eta laudorioak, ordea, ez ziren hor amaitu. **Pello Salaburu eta Inaxio Oliveri** hezkuntza sailburuak ere beraien ekarpena egin nahi izan zuten ekitaldi honetan. Azken honek Artze anaiek txalapartaren biziraupenean izan duten garrantzia goraipatu zuen. "Artze anaiek galzorian zegoen txalaparta eta toberaren albiste eman ziguten. Lasarteko sagardotegi



galduetan baizik geratzen ez zen txalapartak harrezkero ezagutu du egoera hoberik. Gaur geure musikagintzaren tresna nabarienetakoa da, eta eurak maisu izan dituzten gazteen esku, esperimentalismoak ekarri dio berpizte izugarria. Eurei esker, biziraupena ez ezik, garapena ere bermatuta dauka tresna honek".

JosAntonentzat ere izan zuen hitzik. "JosAntonek gainera, poesia ikuskizun bilakatua du inork gutxi ez bezala. Berak argitaratu zuen "Izturitzetik Tolosan Barru" liburu gogoangarria aintzindari izan zen gaur egun multimedia izenez eza gutzen diren horien artean.

Musika, poesia, arkitektura, diseinua... artea bere osotasun espresiboan hartzen zuen lan hark kontuan".

Ekitaldia amaitzearekin batera ez zen giro lau omenduen inguruan. Kazetariak alde batetik, lagun eta senitartekoak bestetik... "zorionak" hitza etengabe entzun zuten laurek. Aspaldi ikusi gabeko lagunak ere agurtu behar izan zituzten. **Juan Mari Arzak** sukaldari ospetsua ere han ikusi genuen JosAnton agurtzen. Bien arteko solasaldia entzun genuenok gara horren lekuko. Zorionak lauroi!

Josu Aranberri



"Ez geunden ohituegiak EHUk kultur ekimenak kontuan har zitzan"

JosAnton Artze

Hasiera batean behintzat, unibertsitatearen eginkizuna eta kultur munduarena betetzeko balio izan du sari honek. Ez geunden ohituegiak EHU-k kultur ekimenak kontuan har zitzan eta horregatik iruditzen zait interesgarria saria. Orain, hemendik aurrera zer egingo duten eta nola jarraituko duten beste gauza bat da.



"Garai hartako mugimendu osoa hartu beharko litzateke kontuan"

Jexux Artze

Poza sentitu nuen sariaren berri jakitean. Sarituok lau garen arren, Ez dok Amairu taldeari bere osotasunean zuzendurik dago nire iritziz. Gainera, nire irudiko, garai hartako mugimendu osoa hartu beharko litzateke kontutan; dela mugimendu artistikoa (literatura, musika, dantza...), dela garaiko arkitektura, ikastolen sortzea...

JosAnton Artzek irakurri zuen olerkia

Bai, maitasuna itsua da,
eta itsugarria.

Bai, egia! maitasunak
itsutu ohi gaitu **zenbaitetan**,
edo lausotu gutxienez,
gauzak berez diren legez
ikusten ez utziz,
behar bezala ikustea eragotziz...

baina, esazue, maitasun doi batez begiratzeak,
ez al digu beste **hainbatetan**
halako edo holakorengan,
hartan edo horretan,
beste begiz ezin genuena
garbi ikusten lagundu?

Asko dakienak,
asko,
asko maite du.

Asko maite duenak,
asko,
asko daki.

Noiz eta gehiago jakin,
orduan eta gehiago maite du.
Noiz eta gehiago maite,
orduan eta gehiago daki.

Asko maite duenak, ordea,
ezer ez,
ezer ez du maite,
zer maite duen ez badaki.

Asko dakienak ere,
ezer ez,
ezertxo ez daki,
dakiena maite ez badu,
dakiena ez bada.

Hala ere, ezer ez jakin behar
guztia jakiteko,
ezer ez dakienaren baitan bakarrik
jakin baitezake guztia
guztia dakienak,
guztia dakien bakarrik.

Asko asko jakin arren,
erruz jakin arren,
dakigun guztia ez da ezer,
ez dugu ezertarako,
geure burua ezagutzen ez badugu;

ezin dugu egiaz ezer ezagutu
geure burua ezagutu gabe.

Sokrates batek esan ote zezakeen
berak zekien zera bakarra
ezer ez zekiela zela,
baldin bere burua ezagutu ez balu...?

esan ote zezakeen bidezki
ezer ez zekiela,
baldin guztia jakin ez balu...?

Guztia dakienak bakarrik
jakin baitezake
ezer ez jakitearen berri.

Baina ezer ez jakiteko
asko asko ikasi behar da,
erruz jakin behar, gero,
ezer ez jakiteko,
guztia jakitera garamatzen
ezer ez jakitera iristeko.

Santa Ageda bezperan kantari



Santa Ageda, Ageda, bihar da Santa Ageda... pasa zen honelako abestiak kantatzeko eguna ere. Izan ere, otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan noski, baseritarrez jantzi, makila eskuetan hartu eta koplak kantari ibili zirenak badira. Arratsaldean Udarregi ikastolako haurrak ibili ziren herriko kaleetan. Txiki eta haundi, haur eta gazte, ondo edo gaizki, Santa Ageda eskean atera ziren. Gauean berriz, Bota Punttuba bertso eskolako koplak entzuteko aukera izan zen.

Santa Ageda bezperan, hau da, 2.000.eko otsailaren 4an eskean ibili ziren Aginagako ikastetxetik irten ziren irakasle eta ikasleak. Baserriz-baserri ibili eta atari bakoitzean bertako nagusiei abestu zieten giro ezin hobean.

Santa Ageda gertuan degu ostirala daukagula, koplak kantari hasiko gara ailegatzean eguna.

Batek soinua ekarriko du ta besteak panderoa, herri guztian jarriko degu Santa Ageda giroa

Buru gainean txapela eta zapia berriz lepoan, eta hanketan albarkak daude loturik era sendoan.

Eskuan berriz poltsa betea eta bestean makila, eta jendea esku zabala benetan izan dadila.



Poltsa bat ere pasako degu baina betetzeko asmoz, limosna biltzen ari gera ta eskertuko degu gogoz.

Ohitura hau da aspaldikoa ta benetan oso zaharra, baina oraindik geratzen zaigu gaur bukatzeko indarra.

Santa Agedari kendu zioten zeuzkan bere bi bularrak bere omenez alaitzen dira Euskal Herriko bazterrak.

Kalerik kale ibiltzen gara baita baserriz-baserri, leku denetan ibiltzen gera zuen denentzat pozgarri.

Eta biltzen den diruarekin guk badakigu zer egin afari eder bat egiten da janari onenarekin.

Itxuraz zaindu beharko dira oraingoan eztarriak, gure ahotsa polita da ta entzun behar du herriak.

Iturgintza - Gasa - Berokuntza

J. Orbegozo



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Igogailuak jartzeko dirulaguntzak

Aurtengo aurrekontuetan, Ongizate arloan, 1.000.000 pezeta aurreikusita dira igogailuak jarri dituztenen artean banatzeko. Behar horiek baloratu ahal izateko arautegi bat prestatuko dute Gizarte Laguntza-ileek. Igogailuak jarri nahi dituztenentzat beste moduko laguntzak ere proposatu ditu Hirigintza batzordeak. Horretarako, igogailuak jartzeko baimenak eskatu beharko dira. Hala ere, barruan igogailuak jarri ezin dutenentzat kanpotik jartzea izan




Donostiako 2. ingurabidearen proiektua egina dago. A-8 autopistatik, Hernanitik barrena Oiartzun aldera doan autobidea eraikitzeko asmoa dute. Aritzeta baserri aldamenetik Zelai Haundi azpiko zelaitik barrena, Irubiden egin duten errotonda gainera Hernani aldera bideratuko dute. Hala ere, ingurabide honen nondik norakoak jakin nahi dituenak udaletxetik pasa daiteke, otsailaren 14tik martxora bitartean autobide berri honen maketa pleno aretoan ikusgai egongo baita.

daiteke irtenbidea. Kasu hauetan, gehienetan, kanpoko lurra publikoa izaten da eta lur hori dohainik uztea litzateke laguntzeko beste modu bat.

Geldialdiak udalan Patxiren alde


Udaleko langileak 15 minutuko geldialdia egiten hasi dira egunero 12.00etatik 12.15etara gose greban dagoen Patxi Seguroolari elkartasuna adierazteko asmoz. Pasa den otsailaren 17an hasi ziren geldialdiekin. Hala ere, lanorduen amaieran 15 minutu gehiago egiten dute lana.



2000. urtean gaude. Erromatarrek Usurbilgalia osoa armaz hartuta daukate...Osoa? Ez! Usurbilgaliar menderakaitz batzuen herriak oraindik ere burua makurtu gabe eusten die indarrez sartu nahi dutenei. Eta bizimodua ez da batere eroso Sanestebaorun, Aginaganum, Txokoaldena, Kalezarbonumgo eta inguruko kanpamendu txikietan dauden legionari erromatarrentzat. Ihauteriak gerturatzan ari direla eta **KONTUZI, GALIARRAK eta ERROMATARRAK** edozertarako prest daude, baita parrandarako ere!




Otsailaren 11a ez zen ohiko osteguna izan Noaia!ko egoitzan. Eguneroko lana alde batera utzi eta aldizkaria nola egiten den erakutsi behar izan genien Euskal Txokoetan dabilzan zenbait haurrei. Ordenadore aurrean jarri, aurreko aleren bat erakutsi, orain eskutan duzun hau nola egiten ari ginen azaldu eta zenbait minutuz Santueneako taldea adi-adi egotea lortu genuen. Ez zen erraza izan alajainkoa!, bestela galdetu beren Saioa izeneko beren begiraleei.



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



BEREZITASUNAK
Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia

Aginaga
36 27 73 **SEKAÑA**

Elkartasuna Pariseraino iritsi da

Joan den larunbatean, otsailak 12, autobuska lagun joan ginen Pariseko La Santé kartzelaraino, urtarrilaren 12tik gose greban dagoen Patxi Segurola Maioz preso usurbildarri gure elkartasuna adierazteko.

Gure artera bilguneak antolatutako autobusa ostiralean abiatu zen Pariserara, ilunabarreko 20.00retan, BATERAK deituta euskal presoek eskubideen alde Udaletxe aurrean bildurik zeudenen agurra jaso ostean. Guztira 42 lagun joan ginen, tartean herriko Alkatea eta hainbat zinegotzi.

Goizeko zortzietako Parisen baginen ere, eguerdira arte presoak bisitatzen kartzelara sartu ziren senitartekoen zai egon ginen, Patxi Segurola-nak tartean. Ez zen egonaldi lasaia izan nolahi ere; une oro poliziak inguruan genituen.

Hamar eta erdiak aldera hurbildu zitzaizkigun Patxiren senitartekoak 40 minutuko bisita laburra bukatutakoan. Beraien ahotik ezagutu genituen azken

berriak: Patxi dagoeneko 11 kilo galdu dituela, gose grebaren ondorioak egunegun areagotzen doazela (zorabioak, ahuldadea ...).

Adorez bete eta hamaika eta erdiak aldera kartzela aurrera jo genuen. Ez genekien zer gertatuko zen; izan ere aurretik poliziarekin izandako elkarrizketetan, konzentrazioa galerazteko asmoa argi azaldu baitziguten.

Bertara iritsi, pankarta zabaldu eta "Euskal Presoak Euskal Herrira" oihuka hasi ginen. Justu ordu laurdena iraun genuen espetxe aurrean. Une hunkigarriak izan ziren hala ere; kanpoko oihuak, barrukoek



La Santé kartzela aurrean bildurik



Gendarmeeek taldea inguratu ostean, seinaka banatzen

botatakoekin nahastu ziren: txistuak, agurrak, kantuak ... Helburua lortua zen: inguruan bildu zen gendarme piloak ez zuen elkartasun lokarria eten.

Ondorengoak berriz, bestelakoak izan ziren; Parisko kaleetan barrena Justizia Palazio aldera joaten saiatu ginen arren, gendarmeek hainbatean inguratu eta geldiarazi gintuzten. Baita seinaka ibiltzera derrigortu ere. Azkenean arratsaldeko ordubietan taldea berriro inguratu eta geldiarazi ostean, autobusean sartu arazi eta, gendarmeen eskolta eta guzti, Paristik irtetera derrigortu gintuzten.

Gure artera bilgunea



IGELTSERITZA

URDANTZI, C.B.

Mugikorra: 649435476

649435476

☎ 943 363370- 361439



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pza. (pertsoneko)




**BAZKARIAK
ETA AFARIA**

Santuenea
Tf.9433627

**EUSKAL HERRIAREN
ETORKIZUNA
DAGO JOKOAN.**

HAUTESKUNDE HAUETAN,

**ENTZUN GAITZATEN,
GEUREA DEFENDA DEZAGUN,**



EMAN BOTOA!




Egin zaitez Noaua!ko bazkide

Gabonetan besteek baino merkeago afaldu edo bazkaldu eta eros ditzazkezu opariak

Antxeta jatetxea
Patri jatetxea
Zumeta jatetxea

2.500 pezetatik gorako otor-
dua eginez
gero %10eko
deskontua



Aldatz kioldenda
Mahuka
jantxidenda
Pauma Haur jantziak
Truke jantxidenda
Usurbil optika denda
Intza ileapaindegia

%10eko beherapena



Arbitza bidea Zubieta
Tel.: 943 362049 - 943 366642

Araeta Jatetxeak gomendatzen dizue
etor zaitezela gure
8. Urtebetetzea ospatzera
eta goza dezazuela hainbat ekintza
eta eskeintza gastronomikoarekin.



SAGARDOTEGIKO MENUA 2.900 + BEZ
Egunero zabalik igande gaua eta astelehena izan ezik.

otsailaren 19an

8. URTEURRENEKO FESTA

EGUERDI eta GAUEKO MENU BEREZIA

Aperitiboa

Talo-erroilutxoak txistorrarekin

Kukulu-entsalada izokin-marinatuarekin
* Anhoen olioazpina

Ajoarrieroa zigalatxoak eta marraskiloekin
Idi-buztanaren salda kantauriko perlatxoekin
Errodabailoa berotutako tomate-oliozpinarekin,
eta almejekin

Solomiloa ondo-xerren gainean

* Mahatsak eta aranak ardotan Pedro Ximenez
erara

Hur-moussea frambuesa izozkiarekin
* Gazta salsa

Prezioa: 5.575 + BEZ

GAUEAN TXEKORRADA

Txistorra

Sardin zaharrak

Txekorra

Gazta, membriloa eta intxaurrek

Sagardoa Txotxetik

Prezioa: 2.400 + BEZ

EGUNEKO IKUSKIZUNAK


Aizkolariak

Trikitixa

Dantzariak

Joxe Ramon Zubimendi: “Zubieta udalerria ez, baina herria da”

Urdaiagako Errota-berrin jaioa, Usurbilgo Elizalden hazia eta Zubietako Etxeberri-txikin gizon egina. Joxe Ramon Zubimendi da bera. Azken 25 urteetan bezala, Zubieta da bere gaur eguneko munda eta datorren otsailaren 27an “Zubieta, mila urteko herria” izenburua duen liburua aurkeztuko du bere herrian bertan. Pasadizo historikoak, herri literaturako pasadizoak, dokumentuak... herri baten bizitza eta horren ispilua bildu ditu 520 orrialdeko lan pottolo-pottoloan. Lan honen babesle izan dira Zubietako Herri Batzarra, Usurbilgo eta Donostiako udalak eta Noaua! Kultur Elkarte.



“Mila urteko herria” da zure liburuaren titulua. Mila urteko herria al da Zubieta?

Bai, milak ez du esan nahi derri-gor 999 + 1, baina beharbada ez da oso urruti ibiliko. Ez dakigu, inork ez daki, eta ez dago jakiterik gaur egun daukagun informazioarekin Zubietak zehazki zenbat urte dituen. Badakigu seguru 700 urte inguru badituela. Hortik aurrera gehiago ere baditu, zenbat ez dakigu. Hala ere nik uste dut 1.000 urte badituela.

Liburu hau egiterakoan dokumentu bilketa garrantzitsua egin duzu. Noizkoa da jaso duzun dokumenturik zaharrena?

1508. urtekoa, baina bertan azaltzen diren gorabeherak 50 urte lehenagokoak dira. Ahaide nagusien arteko borroka bizibizian zegoeneko da, XV. mendekoa. Baina dokumentua eskuratu ez arren, Zubietak independentzia galdu zuen garaikoa da zeharbidez lortu dudana informazioz zaharrena. Dokumentu hori ezin da eskuratu, Ingelesek eta Portugesek Donostia erre zutenean, galdu baitzen 1379. urteko

dokumentu hori. Dokumentu haren edukia berri badakigu, zorionez, norbaitek erre aurretik han jartzen zuenaren apunteak hartu zituelako. 1379. urteko otsailaren 28a da Zubietak legez edo formalki Zubietak independentzia galdu zuen eguna.

Zubieta, beraz, urte hori baino lehenagokoa da.

Badago Roncesvallesen 1200 urte inguruko Irisasi mendiari buruzko dokumentu bat. Hor dokumentu zaharrago bat bazela irakur daiteke. Han jakintzat ematen da Irisasik “Zubietako unibertitatearekin” muga egiten zuela, eta mugak lehendik jarritakoak izango ziren. Horrek esan nahi du lehendik ere Zubieta herri bezala antolatua zegoela, herri horren gizartea antolatua zegoela, Zubietaren herri barrutiak eta mugak oso garbi zeudela. Hala ere, hau jasotzen duen dokumenturik ez da azaldu.

Nola bururatu zitzaizuen honelako liburu bat egitea?

Hor bi gauza gertatu ziren: gogoia eta beharra. Zubietan

aspalditik jendeak beti izan du, eta oraindik ere badu, herri berezia izanaren kontzientzia. Kontzientzia baino gehiago da sentimendua, nahiz eta zergatik, nola, noiztik jakin gabekoak izan gehienak. Bestetik, administrazio-ko gauza konkretuei dagozkien alorretan, Donostiak eta Usurbilgo udalek ere ez zekiten oso ondo zein sistema egon ziren aurretik. Ikerketa bat egin nahi zuten argitzeko zergatik den Zubieta administrazio aldetik berezia zergatik den, azken finean horren zergatia jakiteko ikerketa bat egin nahi zuten. Liburuan hori dena jasota dago orain.

Liburu honekin zuen hasierako helburuak bete dira?

Administrazio aldetik azken 100 urtetako hainbat dokumentu bildu ditut. Zubieta horrela noiztik, zergatik eta nola dagoen aztertu dut jendeari aditzera emateko. Ikertzaile mailan lanak egiten badira eta jendeak lan horiek ez baditu eskuratzen erdibidea bakarrik egiten da. Nere bidea “egin eta zabal zazu” da. Ikerketan azaldu diren gauzak

herriari zabaldu nahi izan dizkiot herriak ulertzeko moduan. Gainera, hasiera batean bete gabeko helburu bat lortu dugu: Zubietako herri artxibo historikoa sortzea. Zubietako herriaren artxiboa sortu dugu, mardula eta etekin asko emango duena. Behin prestatu ondoren edonoren eskura egongo da.

Nondik eta nola lortu dituzu dokumentuak?


Bi iturri nagusi izan ditut: orain arte argitaratu diren liburuak batetik, eta artxibo historikoak bestetik. Zubietari buruzkorik ez da inoiz argitaratu, baina Usurbili buruzkoak baliagarri izan zaizkit. Artxibo historikotan bilaketa lana egin behar izan dut. Bilaketa hori interneten murgilduz hasi nuen, arrasto nagusiak non dauden ikusteko. Arrasto horiek Bergaran Eusko Jaurlaritzak gai historikoetarako jarrita duen informazio zentzura eraman ninduten lehendabizi. Hemen materiala bilatu dhal izateko informazio konkretua aurkitu nuen. Zubietari buruzko dokumentazio multzo handia Valladoliden zegoela jakiteak harritu ninduen gehien.

Zergatik Valladoliden?

Garai batean auzi bat izaten zenean zein bide egiten zuen ikusi behar da. Zubietan auzi bat sortzen zenean, bertan ezin bazuten konpondu auzitarako eskubidea zuen alkaterengana jotzen zuten; Usurbil aldekoa bazen Usurbilgoarengana eta Donostiakoa bazen Donostikoarengana. Auzi hori konpontzen ez bazen, galtzaileak Tolosako korregidorearengana jotzen zuten eta hurrengo pausoa eta azkenekoa Valladolideko Epaitegi Gorena zen. Beraz, Valladoliden Epaitegi Goreneko artxiboa dago eta hor azaldu da material pila bat. Zubietako Artxibo Historikoko materialik zaharrenak eta onenak hortik lortu ditut.

Horrezaz gain, beste leku askotatik eskuratutako dokumentuak ezta?

Asteasuko artxiboan eskritura bat agertu da, Zubietak eta Sorabillako jaunak egin zuten hitzarmena hain zuzen ere.



Hernaniko udal artxiboa, Tolosako Gipuzkoako Agiritegi Nagusia, Herri Batzarraren artxiboa, Iruñeako eliz barrutiko artxiboa... leku asko izan dira nire informazio iturriak. Azken hau garrantzitsua da. 600 urtez Zubieta eta Usurbil Iruñeakoak izan dira elizaz. Elizari zegozkion alorrak, eta orduan asko ziren, denak Iruñeako eliz barrutiko artxiboan aurkitu ditut.

Zubietan bertan dokumentuak eskuratzeko arazoak izan dituzula esan digute.

Bai, hori egia da. Zubietan bertan bada dokumentazio aberatsa, ba omen da esan beharko, ez baitut ikusi: Zubietako komunitateak daukan dokumentazioa hain zuzen ere. Agiri zaharrak izan behar dute, eta oso garrantzitsuak gainera. Zubietako, Donostiako eta Usurbilgo alkateek bertan zegoen artxiboa nere esku jartzeko eskaera egin zioten Zubietako Komunitateari. Zorritzarez komunitateko lehendakariak uko egin zion horri. Tristeia da esatea, baina Valladoliden erraztasun

gehiago eman dizkirate Zubietako Komunitateak baino.

Zubieta zer da auzoa ala herria?

Herria, dudarik gabe gainera, baina ez da udalherria. Euskara eta erdararen arteko nahasketa bat dago hor. Euskaraz oso ongi bereizten da zer den herria eta zer den udalherria, baina erdaraz ez. Jende askok erdaraz dagoen planteamendua du buruan, "pueblo" horrena. Zubieta herria da baina ez udalherria bere garaian, herri txikia izanik, beste herri txiki askoren modura, eta ahaideen arteko gerra giro oso gogorra izan zenean, bere burua defenditzeko gauza izan ez eta Usurbil eta Donostiaren babesean jarri zelako. Babes horren prezioa izan zen independentzia utzi eta autonomia hartu behar izatea. Autonomia, geroztik, gero eta murriztago eta kaxkarrogoa izan da, batez ere azken 50 urtetan Donostia nahiz Usurbilgo udalari hala komeni zitzaizolako noski. Auzoa esaten duenak edo ez daki, edo beste zerbait nahi duelako esaten du hori.

Hala ere udalherri haundiagoen babesean jarri ziren herri haietako askok independentzia berreskuratu zuten gero.

Baina Zubietak ez. Herri haietako askok udalherri izaera berreskuratu zuten erregeri baimena eskatuta. Erregeak baimena eman zuten ordaindu egin zutelako, hor ez dago beste koplarik. Dirua zue-

Zubieta herria da baina ez udalherria bere garaian, bere burua defenditzeko gauza izan ez eta Usurbil eta Donostiaren babesean jarri zelako

nak ordaindu egin zuen eta berreskuratu egin zuen bere izaera. Zubietak ez, beharbada dirurik ez zuelako izan XV. mende hasieran. Garai hortan erregeari diru hori ordaindu izan balio, orduz geroztik Zubieta, beste edozein herri bezala independentea izango zen.

Baina Zubieta independente izan daiteke hain herri txikia izanik?

Ba al dakizue jendez zenbat herri diren Gipuzkoan Zubieta baino txikiagoak? 22 udalherri. Gipuzkoako lau udalerrietako bat Zubieta baino txikiagoa da jendez. Nafarroako udalerrietatik erdia, Araban hirutik bat eta Bizkaian seitek bat. Datu horiek denak liburuan aurkituko dituzue. Iritziak iritzi, bakoitzak bere iritzia, baina datuak eta gauzak nola diren arrazoiak garbi.


Urteetan zehar nolakoa izan da Zubieta?

Nik ikusi dudanagatik, baserriak ziren nagusi. Baserri bakoitzak bere inguruko terreneak zituen eta gero komunitatearen terreneak egon izan dira, denen terreneak. Bi errota baziren, harrobia, teileria... Zubieta autarkia bat bezala zen. Errota garai bateko bizimoduaren industria oso garrantzitsua zen eta Gipuzkoako hoberenetakoa gainera. Donostiatik, Igeldotik, Hernanitik, Usurbildik Zubietako errotara etortzen ziren. Ez bertan errotarik ez zeukatelako, oso errota ona zegoelako baizik. Paperetan agertu da bezeroak txanda hartu ezinik nola ibiltzen ziren Zubietako errotan eho behar horrekin. Aliri baserria adibidez, Zubietan egindako teilez, ladriloez, Zubieta mendiko egurrez eta Abalozko errekatik ekarritako arlo-sa haundiekin egina da.


Nola salduko zenuke liburua?

Gu herri zaharra gara zorionez. Orain bizi garenok soka baten muturra gara, baina soka aspalditik dator. Gaur egun zubietarrok zer garen ulertuko badugu, jakin behar da soka mutur horren aurretik zer dagoen. Gu orain bagara haiek lehenago izan direlako. Hori izan da liburuaren helburua. Hau zubietarrentzat etorkizuneko kontua da. Zubietak bere burua hornitu eta argitu beharra dauka. Nik arrisku gorria ikusten

Liburuan aurkitu ditzakezun zenbait pasarteri buruzkoak

 1660. urtean Zubietan eliza egin zuten gau bakar batean eta isilkka, hiru lekukok esaten dute hori. Garai hartan Atxega Usurbilgo elizaren patronoa zen eta Zubietakoarena ere bai noski. Usurbilgo erretore eta apaizak berak izendatzen zituen, eta hauei ordaindu ere bai herriari kobratutako hamarrenak eta atxekinak ematen zuten dirutik. Zubietan eliza eginez gero, Usurbila elizara joaten zen jendeak hamarrenik eta atxekinik Usurbilen ez zuela ordainduko, eta gero limosnarik, ogirik eta argizaririk ez zuela eramango uste zuten Atxegako jaunak eta apaizek. Diru arazoa zen guztia.

Horregatik isilgordeka egin zuten eliza. Baina nola egin zuten gau bakar batean eliza? Gaur dagoen eliza ez baita orduan egin zuten eliza. Teilatu eta guzti, hamabi lagun bakarrik sartzen zirenegurrezko eliza egin zuten. Ilunabarrean hasi, hurrengo goizerako bukatu eta amaitu orduko meza emanaz konsagratu egin zuten. Horregatik, Atxegak ezin zuen baimenik gabe eliza bota. Hor 20 urte baino gehiago iraun zuen auzia hasi zen.

 Juan Mari Lekuonak Aliriko zubia oso zaharra zela esaten zuen, Asintxio Elustondok berriz Etxebestek Ameriketatik bidalitako diruaz egina zela. Batetik besterako saltoa 600 urte baino gehiagokoa zen. Nik aurkitu dut horren gakoa. Zeinek du arrazoi? Ez bata eta ez besteak, eta beste alde batetik biak ere bai. Bien planteamendua da harrizko zubia hasi eta buka egina dagoela, eta ez da horrela.

Zubiak duen Zubieta aldeko zatia aspaldi egindakoa da, beste erdia egurrezkoa zen. Zergatik? Zubietak muga naturalak ditu, urezko mugak, artzai garaikoak. Zubia egitea oso zaila zen garai hartan, baina estrategia aldetik zati bat egurrezkoa izateak bazuen bere arrazoiak. Gerra garaian, etsaia zetorreanean zubietarrek egurrezko zatia kentzen zuten eta jendea pasadizorik gabe gelditzen zen. Pasa nahi zuenak, zaldi eta guzti batzuk eta infanteriakoak oinez uretan sartu behar zuten. Pasako ziren baina gaizki eta bi aldiz pentsatuta gainera. Izan ere, besteak erasotzeko prest egoten ziren Zubieta aldean, lehorrean. Arriskua, bistakoa da.

dut Zubietan oso epe laburrean gainera: Donostiaren eskutik itoko gaituzten arriskua. Horren aurrean guk gure burua zutik jarri eta errespetua eta gizalegea behar ditugu. Alde horretatik komeni zaigu sentimenduz gain tresnak, arrazoiak edukitzea eta arrazoi horiek liburuan bertan daude.


Zubietaren historian murgilduta ibili ondoren, nola ikusten duzu Zubietaren etorkizuna?

Batzuk Zubietak independentzia behar duela diote, beharbada bai. Beste batzuk independentziaren beharrik ez duela diote, autonomia duena errespetatzea baizik, beharbada bai. Ni batarekin

nahiz bestearekin konforme nago. Baina niretzat garrantzitsuen horren sustraian dagoena da. Zubietak gizalegea eta errespetua behar du. Zubieta errespetatu egin behar dute; legez horretara behartuta daude, baina ez dute betetzen. Nire iritziz jauntxokerian ari dira, eta hori da ezin dudana onartu. Horren kontra independentziaren edo autonomiaren alternatiba landu? Ni biekin nago konforme, beti ere horrela Zubieta errespetatzen badute. Esatea erraza da baina egitea ez, falta den funtsezko errespetua beharrezkoa da.



Iñaki Iurrumendi
Mendizabal



- Donostian jaioa
- 45 urte
- Kirol Patronatoko teknikaria

Ariketa fisikoa eta gure burua

Gaur egun ez gaude garai batean bezala ohituak. Orain dela gutxi arte jendea oinez ibiltzen ohitua zegoen (adinekoei galdetu besterik ez, egunero zenbat ibiltzen zen jakiteko), eta gauza gehienak egiteko bere gorputzez baliatzen ziren, eta ez bakarrik baserriko lanean, beste lantegietan ere indarka aritzen ziren. Gaur egun berriz, kotxez, autobusez edo asko jota, trenez mugitzen gara, lanean (bai etxean edo kanpoan) ez dugu izerdi handirik botatzen botoiari sakatuz edo kalka eginez aritzen gara lanean.

Gorputza ez dugu erabiltzen eta motelduta gaude; eta nire ustez, gorputza moteltzen bada, burua ere moteltzen da, ez dago kemenik, purrustak eta haserretzeko joerak ugarikoak izaten dira, bizipoza nekez izaten da.

Azkenaldian gero eta gehiago ugartzen ari diren makinek gure lana errazten badigute ere (hori ez da txarra), gure burua ondo sentitzeko, ariketa fisikoa eta jolasaren beharra dugu. Nork ez du izerdia erruz bota eta atseden baten ondoren lasaitu eder bat hartu? Edo lagun artean pilota partida bat jolastuz gozatu? Edo koadrilan bizikleta bueltaxka egin ondoren bere burua hobetu sentitu? Edo mendian ibilita tristurak uxatu?

Gure osasunaz arduratzen direnek, hau edo bestea egitea agintzen digutenean (oinez ibili behar dugula, edo igerian hasi beharra dagoela, edo kiloak galdu behar ditugula, edo ...) arrazoia dute, baino ez bakarrik medikuntza ofizialaren ikuspegitik, hau da, gure gorputzeko atal bati edo besteari komeni zaiolako, baizik eta gorputza bere osotasunean hartuta, mugitzeko eta erabiltzeko egina daukagulako. Ez

dezagun herdoiltzen utzi, ez eta gure soineko atalen bat ere, gure gorputz osoaz gozatu egin behar dugulako, horretarako egina dagoelakoan nago, ez dut zalantza izpirik ere. Gozatu egin behar dela esaten dudanean ez da estutu edo lehertu esaten, batzuek sartzen dizkiguten irudiak sinestuta astakeria galantak egiten baitituzte.

Eta gozatzeko, gure burua ezagutu behar dugu, eta nolakoa den, zer komeni zaion ikasi egin behar dugulako (denak, zorionez ez gara berdinak) eta horretarako aholkuak aholku, norberak erabaki behar du zer eta nola egin behar duen, handi-mandokeria horiek ahaztuta, bere mailan, bere soina bere mugak eta dohaiaik dituelako eta batez ere, norberarena delako.

Ariketa fisikoak balio izan dezala besteenganako harremanak sendotzeko, ez gaitzean zomorroak izan jarduerak gure aldetik egiten, eta besteekin gure zaletasunak, militantziak, afizioak, "erokeriak" konpartitu gabe, izugarri aberastu gaitzakeen aukera alferrik galdu. Batzutan, ariketa fisikoa heririk aldentzeko dela ikusten dugu eta ez da horrela izan behar, kirolak gure gizartean kokatzeko balio du eta ez alderantziz.

Eta zerbaitetan arituz gero, badugu Usurbilen aukera ederra; ez da makala ez, herri txiki honek eskaintzen duena, nahiz eta nire iritzirako, usurbildarrek ez dauden jabetuta Usurbilek duen eskaintzaz. Bere neurriko edozein herrikin alderatuta, Usurbil izango da, ariketa fisikoa, jolasa eta kirola egiteko aukera zabal eta onenetakoa daukan herria; ez ezazue aukera hau alferrik galdu, ahal den bitartean, gorputza astindu, mugitu, bizi.

MAHUKA

BEHERAPENAK %50ean azken egunak!

Gizon eta emakumezkoen

modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

TXIKILINDO

- G O Z O K I A K -

IZOZKIAK - FRESKAGARRIAK - FRUITU LEHORRAK

Zubiaurrenea, 3

Telf.: 696 851979

Lehiaketa



Zein da baserri honen izena?

Asmatzaileen artean Patri tabernan bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu

Baserriz baserri, handik honera eta hemendik hara hor gabilta etengabe lehiaketa honetan. Auzo batetik bestera berehala joaten gara *Noaua!* aldizkariko txoko honetan. Zuen laguntzarekin noski, zuen erantzunik gabe ez ginateteke eta gabiltzan bezala ibiliko. Aurreko alean ere baserri baten izena galdetu genizuen, baita zuek erantzun ere. **Murgil-enea** zen erantzuna. **Julen Arteaga** da berriz irabazlea. Hainbeste erantzun egon eta berari egokitu bi pertsonentzat afaria. Zorionak!

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

ZENDOIA-ENE



Gosariak, hamaiketakoak,
eguneroko menuak eta
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60



ARRAINDEGIA
PELLO

Arizeta Kalea, 1
Tif 36 21 64
USURBIL



Zinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Arizeta 1 behea,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

A genda

OTSAILAK 20 igandea

- Patxi Segurola gose greban dagoenez, elkartasuna adierazteko **giza katea** egingo da frontoitik abiatuta eguerdiko ordubatean.

OTSAILAK 21 astelehena

- Euskal prozesu demokratiakoaren aldeko konzentrazioa. Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.

OTSAILAK 26 larunbata

- **Noaua!** Kultur Elkartek **urteroko Batzar Orokorra** egingo du udaletxeko pleno aretoan. Goizeko 10.00etan hasiko da eta ondoren hamaiketako izangoa.
- Otsailaren 26an eta 27rako **Formigalera eski irteera**

antolatu du Andatza Kirol Elkartek. Izena eman nahi duten guztiek Txiriboga tabernan eman ahal izango dute izena. Prezioa: 11.500

OTSAILAK 27 igandea

- Eguerdian, **Joxe Ramon Zubimendiren "Zubieta, 1000 urteko herria"** liburua **aurkeztuko da** Udal aretoan. Ondoren herri bazkaria.

OTSAILAK 28 astelehena

- Euskal prozesu demokratiakoaren aldeko konzentrazioa. Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.


OHARRAK

- ✓ **Ford Escort Turbo Diesel kotxea** daukat **salgai**. SS-4609 AS. Deitu 943 36 33 90

/ 943 43 54 76 telefonotara.

- ✓ **Neska euskaldun bat** eskaintzen da **haurrak gauetan zaintzeko**. Interesatuok deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).
- ✓ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke**. Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).
- ✓ **Rossignol markako snowboard tabla** daukat salgai fijasio eta guzti. Tel.: 943 36 51 80 Kami (gauean deitu).
- ✓ Tabernan lan egiteko **persona bat** behar da. Deitu arratsalde. 943 37 3844
- ✓ **Peugeot 205 kotxea** daukagu salgai. SS-Z matrikula. Interesatuok deitu 943 36 54 66 telefonora.

Ihauteriak Usurbilen



BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

JARRI HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Telf: 943 36 03 21



Giltzak kopiatzen ditugu!

ALDAMU

Zapatak, Kanpinak, Kremailerak (poltsak, zamarrak, galtzak...)

Kale Nagusia, 2

Tel: 943 37 27 95

EUSKAL HERRIKO DEIADARRA

abstentzioa

OTSAILAK 4-26
MARTXA
zaratatsua



Euskal Herriarrok


GERNIKA 4 BERRIO 5 BILBO 6 ALGORTA 7 BARAKALDO 8 LAUDO 9 BIANA 10 LIZARRA 11 TUTERA 12 IRUÑEA 13 BARRIAIN 14 ELIZONDO 15 ALTASU 16 TOLOSA 17 ARRASATE 18 AGURAIN 19 GASTEIZ 20 DURANGO 21 ONDARRU 22 HERNANI 23 IRUN 24 LESAMA 25 ORENETA 26 DONOSTIA




- Leku lasaia eta giro atsegina
- Asteko zazpi egunetan zabalik
- Sagardotegiko menua bazkari eta afarietan; bakailaoa eta haragia
- Etxeko sagardoa dastatzeko aukera

EGIOLETA BASERRIA z/g USURBIL

Telf.: 943 36 63 27



Egin txotx! Tolare-sagardotegietan



AGINAGA




Aginaga, Tlf: 943 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

ARAZETA



Zubieta, Tlf: 943 36 20 49
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

ILLUNBE



Txokoalde, Tlf: 943 37 16 49
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

IRUIN



Zubieta, Tlf: 943 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

SAIZAR



Kalezar, Tlf: 943 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdietan itxita

URDARRA



Aginaga, Tlf: 943 37 26 91
Urtarrilaren 15etik irekita